

forniako hondartzara liluragarrietarako bidea hartuko baitu nebak, gibelean basamortuko hondarrezko ozeanoak utzita. Hirian, baina, eguzkipean sortu eta garatutako delituzko azpimundua ezagutuko du: droga-trafikaziteak, porno domestikoa eta praktika okultistak.

Era berean, sasoiako tribuekin erlazonatuko da lke gaztea, besteak beste, surflariekin, punk rockerrekin, motorzaleekin eta bikinia soinean dutela etenik gabeko festa bilatzen duten neska ederrekin, zeintzuk, Tuckerren antzera, beren jatorrizko herri-zuloak abandonatu dituzten ziutateko eguzkiak, hondarrezek eta plazerak sorginduta. «Hiriaren makinaria ere berotzen hasia zen, abiadura handian mugitzen zen, boomer engranajea, haxixaren olioarekin eta kakaoaren gantzarekin koipeztatua, kokainari lotua, New Wave-ko eroserki batekin trikitraka egiten».

80ko urteetako giroa maisuki islatzen du Nunnek, kasik ukitu egin ahal diren metaforen bitartez. Irudi horietan, argia, eguzkiarena batez ere, eta itsasoaren indar geldiezina nabarmenak dira. Ozeanoaren presentziaren harira, surf eszenen deskripzioak itzelak dira, irakurleari sentiarazten baititu tutu batean dagoela, horma bat jaisten ari dela edo metro eta erdiko olatu baten pisuaren azpian dagoela. «Ezagarri zikliko bat zegoen guztian, argiaren jolasean, olatuen mugimenduan. Momentu aparta izan zen, eta bat-batean sentitu zuen guztiari konektatua zegoela, horren parte zela era organikoaren batean».

Kontakizuna, halaber, iniziatikoa da, lkek narrazioan zehar biziko duen eraldaketa nabarmena baita; besteak beste, naturaren gozamen dastatuko du surfaren bidez, baina gaiztakeriaren itzalak ere harrapatuko du, harrapakariaren eta biktimen mundu ilunaren bitartez. Bidean, gehiegieria eta sexua ere ezagutuko ditu: sekulako zartakoa hareaz betetako etxola batetik datorren trauskil gazte batentzat. «Nire pertsonaiki sarritan isolamendu egoera batetik abiatzen dira», iritzi izan dio Nunnek.

Horiek horrela, genero beltza gauditzen duen lana da *Tapping Source*. Hori dela eta, Graham Greenek kasik 50 urte lehenago plazaratutako eta orriotara ekarritako *Brighton Rock* eleberrarekin alderatu daiteke, zeina, beltza izanagatik, Brighton hiriko udatiarrez gainezka dauden hondartzetan gertatzen den.

Lan-eskubideak, denontzako

Irati Majuelo

Bazterrekoa, higuingerria, arrisksua... zikina; horrela izendatu izan da sexu-salerosketak. Destainaz begiratu ohi zaio sexu-lanari, eta hortaz, baita sexu-langileei ere. Ordea, iraina bere egin, eta lau eskutara idatzi duten liburuaren izenbururako erabili dute Juno Mac eta Molly Smith sexu-langilek, ingelesez *Revoltinng prostitutes*, nazkagarri adiera matxinadarekin lotuz. Amaia Astobizak euskaratu eta Katakarak argitaxeak argitaratu du orain, sexu-langileen borroka gurea ekartzeko asmoz.

Izan ere, sexu-langileen eskubideen aldeko borroka du gai nagusizat saiakera honek. Hau da, langile-eskubideak aldarrikatu eta borrokatzeko beharra jartzen du erdigunean, begirada moralizatzaileetatik urruntzeko eskaria egitearekin batera: «Ez dizuegu eskatzen sexu industria maitatzeko. Guk ez dugu maite, noski. Eska-

tzen dizueguna da sexu industria-rekiko eta gizonekiko –putazaleekiko– sentitzen duen higuinak ez dezala gainditu sexua saltzen duen jendearekin enpatizatzeke duzen gaitasuna». Horretarako lehen pausoa, noski, errealtatea ezagutzea da, aurrez eraikitako iruditerietatik aldendu eta sexu-lanean aritzen direnei entzutea. Bide horretan, tresna garantzitsua da saiakera hau.

Bi atal nagusitan bana daiteke liburua: batetik, lehendabiziko hiru kapituluak hiru gai gakoaren inguruan teorizatzen dute (*Sexua, La-*



'Putazaleekiko'

Idazleak: Juno Mac eta Molly Smith.
Itzultzailea: Amaia Astobiza Uriarte.
Argitaletxea: Katakarak.

Umorea eta irakaspenna

HAUR ETA GAZTE LITERATURA


Imanol Mercero

Mateo Txantxiku pertsonaiekin egindako bildumaren lehen alea da *Mateo eta zapoak*. Bilduma sei titulu osatzen dute, oraingoz, guztiak berdinak formaz eta itxuraz, eta *Mateoren superboteak* izenaren baitan kaleratu dira.

Ilustrazioekin oso ongi hornitututa dago, testua irudien gainean txertatuta agertzen da, eta, hala ere, ez da album ilustratua. Letrak ezinbestean irakurri behar dira, irudiek narrazioari testuingurua ezartzeko lana baitute, atzerki edota txotxongilo obra baten antzera. Ohar hau beharrezkoa da bitartekariak konturatu gaitzen bilduma hau letrak irakurtzen badakiten pertsonentzako dela egokia, itxurak kontra-

koa iradoki arren, hau ipuin bilduma bat dela.

Lehen zenbaki honi dagokionez, kontakizuna umoretsua eta irakaspenezkoa da, aldi berean. Istorioa bere osotasunean begiratu izen badugu, biraokak eta irainak botatzea txarra dela aldarrikatzen duela konturatuko gara; istorioaren pertsonaiek eta pasarte txikiak, ostera, barrea eragiteko modukoak dira. Kasualitate lagun, euskal tradiziozko *Izarra kopetan* ipuinarekin antzekotasun nabarmenak ditu.



'Mateo eta zapoak'

Idazlea: Daniel Monedero.
Ilustratzailea: Anna Laura Cantone.
Itzultzailea: Patxi Zubizarreta.
Argitaletxea: Ibaizabal.

na eta *Mugak*), eta eztabaidagai izan daitezkeen korapiloak deslortzen saiatzen dira, hari muturrei tira egiten. Bigarren atalak, hurrengo kapituluak barnebilduko lituzkeenak, sexu-lana erregulatua edo kriminalizatzeke eredu desberdinak aztertzen ditu, herrialde zehatzetako legeak eta joerak aintzat hartuz: erdizkako kriminalizazio partziala, kriminalizazio erabatekoa, erregularizazioa, Suediar eredu eta erabateko deskriminalizazioa.

Ongi funtsatutako saiakera da, erreferentzia ugari darabiltzanez ideiak sostengatzeko. Hala ere, indar gehien ematen diona autorea baliatzen duten adibide eta testigantza kopuru handia da. Izan ere, saiakerearen ildo diskurtsiboari eustez gain, etsenpluek ikusgarri egiten dituzte sexu-langileen errealtate askotarikoak, ibilbide, biografia eta bizipen anitzak. Alde horretatik, iruditeria kolektiboak sexu-lana gutxiesteko darabilen arketipoa deseraikitzen du liburua, eta begirada homogeneizatzaile hori salatzen. Ezin uka zenbait unetan trinkoegia denik, informazioaren ugaritasunak saturatzeraino. Zenbait ideia sarri errepikatzen dira, esaterako. Hala ere, argi gertzen dira tesi nagusiak: idazleek az-

pimarratzen dute sexu-lana lana dela, eta ondorioz, sexu langileen lan eskubideak bermatu behar direla, eta, bide horretan, kriminalizazioak arriskua dakarrela ezinbestean, migrazio legala oztopatzeke arriskua dakarren gisa berean. Saiakerak intersektionalitateetik heldzen dio gatazkari, klase-, genero- eta arraza-zapalkuntzak erroretatik landuz.

Aipatzekoa da, halaber, feminismoaren adar abolizionistari egindako erantzun zuzena dela liburua. Alabaina, aintzat hartu behar da testuinguru anglosaxoi batean idatzitako saiakera dela, eta ondorioz, terminologia ere testuinguru horri atxikia dagoela. Hau da, askotan «feminismoak», «feminismo hegemonikoak», «feminismoaren zati handi batek» adierazten dituen ideiei kontra egiterakoan, zehazitate askotarikoak, ibilbide, biografia eta bizipen anitzak. Alde horretatik, iruditeria kolektiboak sexu-lana gutxiesteko darabilen arketipoa deseraikitzen du liburua, eta begirada homogeneizatzaile hori salatzen. Ezin uka zenbait unetan trinkoegia denik, informazioaren ugaritasunak saturatzeraino. Zenbait ideia sarri errepikatzen dira, esaterako. Hala ere, argi gertzen dira tesi nagusiak: idazleek az-

Izaki miragarrien entziklopedia

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Lilith, Zirtze, Baba Yaga, Kyoko, Ama Shtipton, Lechuza, Santa Muerte, Cecile Fatiman eta Mari. Zerrenda honetakoak liburua ardatzen duten atalen izenburuak dira, eta, biztan ezin, sorgin eta jainkosen izenak ere bai.

Izaki miragarrien entziklopedia izenburuarekin Ibaizabal argitaletxeak bi liburuki atera ditu (oraingoz?): *Sorginak* bata, eta *Maitagarriak* bestea.

Esku artean dugun *Sorginak* honi buruz ariko gara gu.

Antigoalekotik hasita –Lilith biblikoa–, gaur egunera arte dator obra. Testuak parean jartzen ditu mitoak eta garaian garaiko errealtateak, bataren zein bestearen aldera biratuz, formatu arin eta berritzaileen; eta, guztiaren

ardatz, aldarrikapen askatzaile feminista dago. Izan ere, obra hau ez da sorginei buruzko katalogo *huts* bat, baizik eta *sorgin* hitzari feminismoak eman izan dion erabileratik abiatutako katalogo bat. Guztiaren sintesi, gainera, Mari euskaldunarekin egindako azken atala dago, zeinetan inkisizioa eta errealtate aurrez aurre murratzen zaizkigun.

Gaiak, mamiak eta formatuak liburu hau gazte literaturako erreferente bilakatzen dute.



'Sorginak'

Idazlea: Cecile Roumiguiere.
Ilustratzailea: Benjamin Lacombe.
Itzultzailea: Amets Sanbhez Munain.
Argitaletxea: Ibaizabal.